



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Pazientearen senidea

Gutxitan aipatzen da **paziente baten sendatze prozesuan bere senide-ek jokatzten duten pape-
ra**. Osagile bezala, haien eragina hainbat ikuspegi-tatik ikusteko aukera izan dut, alde eta kontra. Kontsultan eginiko azken irakurketak (“Topical Issues in Pain 2”, Gifford ed. 2000) gaiari buruz hausnartze-ko aukera eman dit, eta zuendako ere baliagarriak izan daitezkeen zenbait ga-ko ekartzea pentsatu dut; garaia-
ren araber, denoi noizbait leku bietan egotea tokatzen baitzaigu (pazientearena zein senidearena).

Guregana datozen paziente asko seni-deek lagunduta egoten dira: seme-ala-bak, bikotea, gurasoak... Baina bakarrik datozenean ere, normalean etxean nor-baitekin bizi izaten dira; horretara, guk emandako aholkuak eta instrukzioak haiekin partekatu behar izango ditu, neurri handiagoan edo txikiagoan. Se-nide horien jokabideak gure aholkuen eraginkortasuna biderkatu... edo ezaba-tu dezakete. Adibide batekin errazago ulertuko da: Mari Asunek, zahartu aha-la, gero eta arazo gehiago ditu oreka mantentzeko. Bistan denez, endekape-na pertsona guztietan gertatzen den gauza naturala da (osasuna kaskartzea alegia); baina aldea dago endekapen ho-ri bizkor edo astiro gertatu. Gure trata-menduarekin azken hau bilatuko dugu: Mari Asun, ahal den neurrian, oinez mantentzea erortzeko arriskua gutxi-tuz. Horretarako, baliabide batzuk erabi-liko ditugu (ariketak, laguntza tekniko-ak...) baina garrantzitsua izango da laguntza hori tamaina egokian ematea: ez gutxiegi, eta ez gehiegi. Izan ere, Mari Asunekin azken arazo hau aurkitzen du-gu. Bera etxeko amona da, maite-mai-tea, eta denek lagundu nahi diote: hara eta hona autoan eramanez; besaulkian eserita dagoenean, gauza guztiak eskura ekarriz; jantzi eta erantzterakoan, haur txikia balitz bezala lagunduz... Egoera

horretan, oso eroso aurkitzen da eta ez du inolako premiarik oinez aritzeko, edo hobetzen saiatzeko. Tamalez, gehie-gizko maitasun horren ondorioz, Mari Asunek oinez ibiltzeko ahalmena behar baino bizkorrago galduko du.

Iñaki, berriz, gazteagoa da: ez ditu oraindik 20 urte bete. Sukaldari la-guntzaile bezala aritzen da, eta bi hila-bete bajaran daramatza gerriko minaren-gatik. Lehen beste lan bat zuen, supermerkatu batean (han pisuak jaso-tzen eta jaisten aritzen zen, eta ez zi-tzaion gerriko minik egiten). Hasieran Goitia zen bere medikua, baina «ezer egiten ez ziola» eta «lanera bidali nahi zuela» iritzita, Lasa medikuarengana al-datzea eskatu zuen. Honek bere ama tratatua zuen hamar urte lehenago, ge-rriko minarengatik: operazio kirurgi-koa egin zuten, eta ondo geratu zen. La-sak baja luzatu eta fisioterapia agindu zion; puntu horretan ezagutu genuen Iñaki. Esplorazioan Iñakik ez zuen biz-karreko muskuluen eta giltzaduren inolako anomaliarik; tratamenduare-kin, berriz, ez da modu esanguratsuan

hobetu. Kontua da kasu hau konple-xuagoa dela: hasteko, Iñakiri ez zaio su-kaldeko lana gustatzen; bestetik, bajaran dagoenetik etxean ez du kolpe zorrik ematen (neska lagunarekin bizi da, hark egiten dio dena); gainera pisuak jasotzea ekiditen du, erosketa poltsa txikiak barne, kalte egingo diolakoan; honen kontura, forma fisikoa erabat galdu du; gainera, amari eginiko opera-zioa gogoan, Iñaki eta biak bide hori ja-rraitu behar ote litzakeen pentsatzen hasiak dira. Paziente hau hobetzeko, ez da fisioterapia bakarrik behar: ezinbes-tekoak dira motibazioa lantzea (edo la-nez aldatzea), aktibitate fisikoari berre-kitea, eta amaren eta bikotearen “ez-laguntza” hori moldatzea. Horrela-koetan, eta jakitun garenean –beti ez baita erraza horrelako koadroetan ba-koitzak jokatzten duen papera ezagu-tzea–, senide horien konplizitate be-harko dugu, laguntzeko baino gehiago kalterako izaten ari diren jarrerak iden-tifikatzeko eta moldatzeko, pazientea-ren hobe beharrez. •

www.abante.eus



Garrantzitsua izango da beharrezko laguntza tamaina egokian ematea.

Luis JAUREGIALTZO | FOKU